# 30 **Noren*gana*** eta **nore*nera***



Aurretikoak

Zehaztu hurrengo esaldietan zer adierazi nahi izan den. Erabili *pertsona* edo *lekua* hitzak.



1. A Egun osoa ematen du **Patxirengan** pentsatzen. ..............................
   B Egun osoa ematen du **Patxirenean**, irten gabe. ..............................
2. A Apraiz **medikuarengana** joateko paperak eman dizkidate. ..............................
   B **Medikuarenean** egon zen bostetatik seietara. ..............................
3. A **Dendariarenean** lapurreta izan da bart. ..............................
   B Aldaketa handia izan da **Anerengan** Unai ezagutu duenetik. ..............................

Ondoko hitzen amaieran zerbait eliditurik edo desagerturik dago. Eman itzazu osorik.



Juan Luis**enean** — Juan Luisen etxean

4. Maria Andres**enekoa** ..................................................
5. Medikua**renean** ..................................................
6. Osaba**renera** ..................................................

Egiteko

Egizu orain alderantziz. Eman itzazu laburturik koloretan dauden zatiak.



*Zapataria egoten den lekutik* nator — Zapatariarenetik

7. Notarioa egoten den bulegora joango naiz. ......................................
8. Txirrita bizi den etxeko sagardoa edan dugu. ......................................
9. Aitona bizi den etxetik gatoz orain. ......................................

Jarri amaiera egokia beltzez markaturik dauden hitz horiei.



10. **Juantxo** . . . . . . . ederto bazkaltzen dela diote. — *rengan / renean*
11. Ez egin txantxarik! **Haginlaria** . . . . . . . . nator. — *rengandik / renetik*
12. Zelako afalondo goxoak egiten ditugun **amona** . . . . . . . ! — *renean / rengan*
13. Aholku interesgarriak jaso ditut **abokatua** . . . . . . . . . . . — *rengandik / renetik*
14. Lehenago irten behar dut, **mediku** . . . . . . . joateko. — *ra / arengana / arenera*
15. **Ander** . . . . . . . beti iskanbilak; han ez dago bakerik! — *renean / rengan*
16. Ez dakit non utzi ditudan artaziak, **Eusebio** . . . . . . . , agian. — *renean / rengan*

Osatu hurrengo arauak. Idatzi hutsuneetan atzizki egokia.



Hausnartu

**ARAUAK** — Aukeratu: *-enean / -engan* edo *-gan / -ean*

1. Inoren **etxea, egoitza**... adierazteko, hitzari . . . . . . gehitzen zaio.
2. Pertsona denean, aldiz, hitzari . . . gehitzen zaio.